



LIBURVAK

LUIS VILLASANTE, O. F. M. *Historia de la literatura vasca.*
Editorial Sendo. Bilbao, 1961.

Emen duzu, irakurle, zuk eta nik eta beste askok aspaldian nai eta bear genduen liburua: emen arkituko dituzu, bestetara jo gabe, euskal-idazle eta euskal-obren gaiñean bear zenituen berri ugari eta zetzak. Eta ez ori bakarrik. Nai-ta-ezkoa zen, eta orrelaxe ikusi du begi zorrotzez egilleak, euskal-idazleez gaiñera —euskeraz mintzatu direnez gaiñera, alegia—, gure arteko erdal-idazleez mintzatzea, gure izkuntzari dagozkion lanak ondu dituzten neurrian beintzat, eta are erbesteko euskalariez, zaar eta oraingoez. Nekez bil zezakean bestek Aita Villasante'k bildu duen argitasun-bilduma aberatsa, eta argitasun bakoitza ezator utsik, bere soillean, buruz eta tajuz dagokion balioari eta lekuari begira neurtua baizik.

Zenbait gai utzi ditu bazterrean egilleak, jakifiaren gaiñean orratik eta alde zurretik aitortzen duelarik: erri-literatura batetik (bertsolariak, Zuberoa'ko pastoralak eta), or-emenka aipatzen baditu ere, eta egungo egunean (edo beintzat liburua osatu zuenean) bizi diren euskal-idazleak. Mingarri izango zaio irakurleari bein baiño geiagotan baztertze au, baiña argi eta garbi ikusiko du jokabide onen arrazoa eta oiñarria.

Onelako liburu bat egiten duenak bere buruaz eman oi du iritzia, bestez ematen duelarik, edo gutxienez beintzat irakurlearen eskuan ipiñi oi ditu iritzi ori emateko bear dituen oiñarriak. Prosa-zalea agertzen zait neri Villasante, eta are irakas-prosaren zale, olerkarien kal-

tean bear bada iñoiz edo bein. Baditeke prosisten bear geiago izatea izkuntza bati iraunerazteko, baiña ezta urria puntu orretan bertan ere poetei diogun eta alde askotan dieten zorra. Zillegi izan bekik olerkarien alde mintzatzea talde orretatik urrutik nabillen ezkeron neroni.

Txorakeria litzake emen uskerien inguruan zirika astea. Orietako bat da, noski, 71'gn. orrialdean aldatzen diren bertsoen egillearen auzia. Villasante'k dio, eta neronek ori esan nuen, Etxeberri Ziburu'koarenak direla; uste dut, ordea, zuzen dabilhela Irigaray, eta gu oker, Claveria'ri aitortzen dizkionean, "Hark berak hari berari" daramate buruan —edo antzeko zerbait: liburua damurik eztaukat eskuartean—, eta leenbiziko "hura bera" aurreko bertsoen egillea bide da —ots, Claveria— eta bigarrena, bertso aiek eskeiñi zizkiona, au da, Etxeberri.

Onako beste oar au izkuntzari dagoka. Ubillos'ez ari dela (151'gn. orrialdean) dio A. Villasante'k: "...por Sabiduría emplea *Jaquiúndea*, palabra que trae Larramendi, pero que no es popular; y es curioso que Larramendi no traiga, en cambio, el popularísimo *jakinduria*, *jakituria*". Baiña gaur erriko itza ezpada, dirudienez, eztu orrek nora ezean esan nai erriko itza etzenik eta are gutxiago Larramendi'k asmatua denik. Egia esan, Larramendi baiño leenago ageri da, O. de Arin'en Dotriñan, 31'gn. orrialdean esate baterako: "...zerren, nola gucietan arquitcen dan, edo guciac dabeen poderio bat, jaquiunde bat, vorondate, edo nay bat... bañan orregatican ere, poderioaren obra guciac atribuitcen zaizca Aita Eternoari, jaquiundearenac [edo sabiduriarenac] Semeari...". Ori aski ezpalitz, ona zer idazten dion Arakistain'ek Larramendi'ri bidali zizkion eraskiñetan: "Sabiduría, *jaquiúndea*, *jaquitea*, *jaquinteá*, G." Gaiñera, oker ezpanago, ez *jakituria* ez *jakinduria* eztira bein ere agertzen O. de Arin'gan. Beraz, dirudienez, oraingo *jakinduria* berria da eta, Gipuzkoa'n beifipein, antziñako *jaquiúndea*-ren ondorengotza artu duena.

Larramendi'ren eragiña eta kutsua, ene iritziz, uste den baiño urrutiago eldu da itz-gaietan. Etxeberri saratarrak, adibidez, *alosis* darabil (*Obras*, 123'gn. or.) latiñezko *musa* itzultzeko eta beste leku batetan ere baliatzen da itz ortaz: "Baina deitzen tut Minervaren dosteta ezti, eta canta-alosien bidez..." (93'gn. or.). Bestetan ez tut arkitzen itz ori, Larramendi'gan izan ezik: "Harmonía, *alosis*, *boza-roquia*, *harmonia*. Lat. Harmonia". Ez ote da, beraz, Azkue'k jaso ez tuen itz bitxi au andoaindarraren semeetarik bat?

Vinson'ek maizegi ikusten zituen, bear adiñako funtsik gabe, euskalki-naasteak gure autore zaarretan. Harizmendi'k (91'gn. or. emen) *-ino* bukaera erabiltzeak ez tu gauza andirik esan nai, beste ainbeste egiten baitu, esaterako, Axular'ek. Etxeberri Ziburu'koak maiz da-

rabil *kristau*, oraingo gipuzkoar baten antzera, baita, are arrigarriago dena, *dongea* ere. Orrela *Manual Devotionezcoa*-n, I, 52: *ô arima donguea*. Eta aurreraxeago (I, 92):

Deabruec daramate condemnatu donguea.

“C'est vn mot Biscayen”, idatzi zion bein Oihenart'ek S. Pourvreau'ri, baiña Bizkai'koa ote zen soil-soillik garai artan?

Zenbait irakurleri elioke batere kalterik egingo Fr. Bartolome'ren *Plauto bascongado* delako liburuxkan azaldu nai den “texto enigmático” ori egon zein izkuntzatan dagoen jakiteak. Auzi erabakia baita Plauto'k bere *Poenulus*'en sartu zituen esaldi illun oriek punikoz daudela, Kartago'tarren izkuntzan. Eta punikoak, juduen izkuntzaren aide urbilla izanik, eztu gurearekin zer ikusi andirik.

Esanak oituraren ondoren nabillela esanik, aski dut liburuaren betea, osoa eta bikaiña berriz ere goratzearekin. Esku-erakutsi ederra ekarri digu Eguerri-inguruan Aita Villasante'k euskaltzale guztioi.

L. MITXELENA.

VIDA VASCA, 1961.

Aldizkari ezagun onek, XXXVIII'garren zenbakia argitaratu dau. 268 orrialdekoa aurtengo au, paper oso onian, balio aundiko argazki eta apaingarri ederrakin.

Heliodoro González Basalduak, eta bere anai “*Ragon*”-ek argitaratzen dabe, Gasteizen.

Nafarroa, Araba, Gipuzkoa, eta Bizkaiko gaiak darabiltza: Kondaira eta Ederti, Literatura eta Folklore batez be. Artechek, Donosti J. M.*k, C. Claveriak, B. Osabak, L. A. de Vegak, L. Achak, V. del Valek, eta beste idazle pillo batek idazten dabe zenbaki onetan.

Ogei milla ogerleko eskeifii dabez, denbora asko ez dala, aldizkari onen ogei ta amazortzi zenbaki danakaitik, baiña ezin izan dabez aurkitu.

N. A. G.

TAVIRA Aldiskaria.

Durangoko Santa Anako Parroku dan Don Jose Etxeandia abade euskaltzale ezagunak argitaratzen dau aldizkari au.

1959'garren urteko asieran atera eban lenengoko zenbakia. Amabi zenbaki argitaratu dauz: paper onian, apaingarri egokiakin, bi koloretan be bai batzuetan.

Durango ta Durango-aldekoak bakarrik ez, Euskalerriko idazle aipatuak be emoten dabez lan jakingarriak. Ez dabe aztu euskeria aldizkari onetan, eta onek poztu gaitu. Jose Etxeandia, Juan Olazaran, Alfonso Irigoyen, Aita Martzen Andrinua Pasiotarra, Joakin Aldabe, Juan Gorostiaga, eta beste batzuen bertso, olerki eta lanak irakurri doguz atsegiñez. Erri-kanta batzuk be ikusi doguz. Batez be Olazaran eta Etxeandiaren Durangoko euskeria izan jaku egoki. Olazaran Durangokua dalako, eta Etxeandiak ondo ikasi dabelako.

Irunek badauko *El Bidasoa* asteroko edo astekaria. Eibarrek be bai bere illerokoa. Luzaidek, Tolosak, eta beste erri aundi batzuk be bai eurena.

Irungoak, bost urte barru beteko dauz eun urte. Beste orrenbeste urte, gitxienez, bete dagizala opa diogu *Tavira*'ri.

N. A. G.



PEPE ARTOLA. *Ustez laguna detan ta beste bertso asko*. Auspoa Liburutegia, 4. Tolosa'n, 1961.

Aurrera darama "Auspoak", eperik luzatu gabe, artu duen bide ederra. Erramun Artola'ri eskeiñi zion leenbiziko liburuxka eta orain laugarrena aren seme Pepe'ri.

Igeskorra da biziro mundu onetan irabaz ditekean izena eta ospea, batez ere egunkari eta nolanaiko aldizkarietan irabazten dena: badi-rudi liburu lodiek, pixuaren pixuz edo, geixeago balio dutela ortarako. Urteek eztiote barkatu iñoiz ain sonatuak izan ziren Pepe Artola'ren etorri eta ateraldiei ere. Gogoan daukat nolako atsegiñez irakurtzen nituen aurtzaroan *Novedades* aldizkarian ni jaio baiño leen argitara zituen "Diálogos cogidos al aire" zirelakoak. Nekez eroriko dira, ordea, gaurko aur edo gazte baten eskuetan. Oraingo zein gaztek ikusi du, beste ale bat aipatzeko, ain ezaguna genduen *Ixkiña Murtikun* bakarrizketa?

Besteak beste, gure oroimen aul eta buru txarraren lagun etorri zaigu "Auspoa". Liburuxka onetan, egilleak berak beterik utzi zuen liburu loditik artutako bertso-sorta polita eskeintzen digu, aurrera ere geiago eskeiñiko dizkigulakoan. Gogoz irakurriko ditu zeinai euskaldunek, eta are gogozago bear bada itzaurrean ematen zaizkigun

Artola'ren bizitzazko berri ugariak. Donostia zaarreko donostiar jator baten irudi bizi orrek eztarama azpian izenik, baiña egingo nuke zerrai, galtzeko beldur andirik gabe, ainbesteraifñoko arretaz eta biotzez gure ondasun sakabanatuak biltzen ari den Aita Zabala'ri zor zaiola.



PEDRO MIGUEL URRUZUNO. *Euskalerritik zerura ta beste ipui batzuk*. Auspoa Liburutegia, 5. Tolosa'n, 1961.

Izkuntza gaietan urak beren bidera itzuli direnean, Urruzuno'k artu du poliki-poliki euskal-literaturan zor zitzaion, eta Altube jaunak aspaldi begiz jo zion, lekua.

Ugari baiño ugariagoa izateaz gaiñera, iztun aberats eta erraz eta kontari trebe ageri zaigu beti. Askok zuten bada gogoan an-emenka barreiatu utzi zituen ipui eta nolanaiko izkirimiriak —liburutxo batean il-ondoan atera zizkiotenez beste— bildurik eta berriz argitaraturik ikusteko. Eta orixe asi da egiten "Auspoa", amaika amets mamitzeko jaioa dirudien "Auspoa", leenbiziko ipui-xorta onek egillearen bizitzaz zerbait eta zerbait baiño geiago aurrean dararamalarik.

Egillea ezaguna dugu, irakurlerik gabe iñoiz arkitu ezten egillea, eta ezaguna dugu argitaratzailea. Zer geiago eska dezakegu?

Congreso de literatura y predicación franciscana en euskera (Aránzazu, 9-12 de agosto de 1960). *Cantabria franciscana*, núms. 57-58-59, Junio-Agosto-October, 1961, año XIX.

Arantzazu'n egin zen batzarre onetara enuen joaterik izan, deitua eta erdizka itzemana nintzan arren, udaren udan eta onenbestez ezin-utzizko eginkizunak egunoro nituenean gertatu zelako. Uts egin nuelako damua an esandakoen berri zeatz onek eztit larritu besterik egin. Pozgarria da, bestalde, berri ori euskaltzale guztien eskuetara irixteko bidean ikustea.

Ona, sarreraz eta A. Villasante'k egin duen "Programaren aurkezpena"-z gaiñera, emen irakur ditzakezun itzaldi eta lanak: Fr. Ignacio Omaechevarría, "Razones y motivos que nos deben animar a trabajar por el euskera"; A. Villasante, "Aita Uriarte eta euskerazko bere Biblia"; Fr. Ildefonso Alustiza, "Igokundeko San Martin" (F. Aro-

zena'ren eskutitz batekin); Aita K. Zubizarreta, "Euskal-liburutegi bat Arantzazun"; Fr. V. Gandiaga, "El euskera en el Colegio Seráfico y en la carrera"; Anai Aingeru Madariaga, "Zer egin gure komentueta euskera biziarri indarra emoteko"; Fr. Benito Azcarate, "El euskera entre nuestros Hermanos"; Iturria'tar Karmel Aita, "El euskera en nuetsros colegios y escuelas de externos" (euskeraz); Fr. Celestino Zabala, "La Tercera Orden y el euskera"; A. Julian Alustiza, "Euskal mixio eta predikuak"; A. Kandido Izagirre, "Lo que los predicadores podrían contribuir a los estudios vascológicos" (euskeraz); Fr. J. A. Elustondo, "Nuestras publicaciones vascas"; Fr. Jose A. Garate, "Gure euskal-liburuak zabaldu ta ezagun-arazteko praille egoki baten premia"; Fr. Celestino Zabala, "El caserío y el euskera"; Fr. Eugenio Aguirreche, "Los medios industrializados y el euskera"; A. J. M. Garayalde, "Euskera erri aundietan"; Fr. Fernando Mendizabal, "El problema de la enseñanza del euskera en nuestra carrera"; Pierre Lafitte, "Lapurdikoko astekari batez"; Hermano Valentín Berriochoa, "Sugerencias al Congeso"; A. Erdozaincy-Etchart, "L'Eglise du peuple: rôle national et social du clergé irlandais"; "Euskal-biltzarreko kronika eta erabakiak".

Gaiak or daude eta or daude tratatu zituztenen izenak: ezta noski besterik bear itzaldiak jakitez eta biotzez ongi ornituak daudela jakiteko. Euskaltzaleek, edozein euskaltzalek, komeni lukete astiro irakurtzea. Ezta asmoen faltarik Arantzazu'n, baiña asmoez gaiñera, zorionez, egiñak eta egiten ari direnak ere aipa ditzakete. Eztaukagu or eragille makala nagiago eta motelago agertzen geranok.



LEON LASSALLE. *Gure Erlisionearen frogantza*. Baionako "Cordeliers" moldiztegian, 1961.

Léon Lassalle kalonje zenaren liburuxka labur bezain trinko au zertarako egin zen eta zertarako argitara duten egillea il-ondoan, nik esan dezakekan baiño obeki azaltzen du aintzin-solasean P. Lafitte euskaltzain jaunak:

"Ohartu zen Eskual-herriz kanpo ibili asko Eskualdun, duda hainitz bildurik heldu direla gibelerat, bereziki protestanten artean urte zombait iragan-eta: badaude ez direnetz erlisione guziak berdintsu,

”Lassalle jaun kalonjeak nahi ukan du laburzki auzi premiatsu hori churitu.

”Liburuchka hunek ez du bertze chederik: ez da tarrapataka irakurtzekoa, bainan arraposki, jastaka eta jakituz.“

Neronek ikus dezakedanez —eta enaiz nor orrelako auzietan mintzatzeko—, ederki tajutua du gaia, lau kapitulutan berezia, eta arira doa beti egillea, itz alferrik gabe. Nolanai ere, bere laburrean, ezta lotsagarri gelditzen liburuxka au beñiola Estebe Lapeyre'k ondu zuen liburu lodiaren aldean.

Itxuraz, bizi txukun eta egoki agertu da.



GRAZIANO ANDUAGA. *Aitonaren usta*. Gezaltzako aitonaren kontakizun eta bertsoekin Aita Luis Villasantek osaturiko bilduma. Itxaropena Argitaldiaria, Kuliska sorta, 47-48'gn. zembakia. Zarautz'en, 1961.

Aita Villasante langille bizkorra genduela bagenekien, baiña egunean egunean baiña bizkorrago ageri zaigu, bai euskeraz eta bai erderaz. Badakit liburu onen egillea, leen iturburuari bagagozkio beintzat, eztela bera, Gezaltza'ko aitona baizik (“denak izan dira bere ezañietatik jaulki bezela artuak”, dio Villasante'k), baiña esanak eta bertsoetarik asko aizeak eramango zituzkean, “sekretario-moduan” lagundu dionak lagundu ezañio.

Liburu au deus gutxikotzat artuko dutenak arkituko dira agian. Ni enazute orietakoa. Liburu atsegiña da aurrenik, eta atsegiña bezain erraza, irakurle askok gogoz eta nekerik gabe irakurriko duena burutik burura. Eta denbora-pasako irakurle ariñek ez ezik, ene ustez, jakintsu kopetillun batek baiña geiagok joko du ezin-bestean iturri umil orretara bere jakin-egarria berdintzeko.

Aurren-aurrenik, Graziano'k dioskuna (ipui zaar eta kontu berri) entzunaz ez arian bezala finkatzen baitzaigu gure arteko nekazari baten uste, iritzi, asmo, nai, beteginzarre eta eskastasunen irudi garbia. Eta Graziano ezta bakarti, erdi basati, orietakoa, bere inguruko “idola fori” geienak ontzat artzen dituen gizona baizik, naiz asko baiña buruz argiago eta bear bada beltz-ikusberaxeago izan. Eztut uste bes-tetan euskal-nekazari baten pentsaera eta gogo-giroari dagokionez

orren eredu beterik daukagunik. Badaukagu ere, gaiñera, argitasun berriz argituko dute Graziano'ren itzek.

Izkuntzaren aldetik ere biziro aipagarria da liburua. Ez, noski, Arantzazu'ko izkera bestetango kutsurik gabe eskeintzen digulako, ezpaita olakorik. Onela aitortzen du Villasante'k: "Liburu ontan azaltzen diran pusketak ez tira bearbada izango ber-bertoko izkeraren ispillu onena." Beste zerbait eskeintzen digu, ordea, ori baiño ardura gutxiagoko eztena: baserritar batek, bertsoetan edo izketa jasoagoan ari denean, erabiltzen duen izkera. Nabari da or A. Ormaetxebarria'ren delako *koiné* aren ukitua eta itz ikasi eta landuen sarkortasuna.

Asierako sarbidean, berri ugari ematen dizkigu Aita Villasante'k, gaur gutxi egin dezaketen bezalako euskera eder eta ugarian, Graziano'ren izaeraz eta bizitzaz, bizi den auzoaz eta bertako izkuntzaz, inguru artako toki-izenez. Azkenik, laburzki, liburuaren zergatikakoa eta zertarakoa azaltzen ditu. Eztu, oso oker ezpanago, alferlanik egin.



CURSOS POLYGLOPHONE C C C. *Curso LV. Vascuence*. Realizado bajo los auspicios de la Academia de la Lengua Vasca y del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo" de la Excelentísima Diputación de Guipúzcoa. San Sebastián, Industrias Gráficas Valverde, S. A., 1961.

Kalean, plazaren erdian, dugu azkenik aspaldiko amets bat: euskal-ikasbide osoa —izenez, lenbiziko maillakoa bada ere—, diskoak dituela lagun ikaslearen belarria oitzeko.

Azkeneko orduan ari naizen ezkerero, eztaukat emen luzatzerik, ezta luzatzeko bear andiririk ere. Esan dezadan, bada, asteko ikastaldi berri au, CCC-ko gaiñerako beste ikastaldi guztien antzera, arras txukun, apain eta dotore agertu dela jendartean.

Ikastaldiaren egillea Nemesio Etxaniz dugu, goi-maillako olerkaria, guztiok dakigunez, eta aoz naiz lumaz gaurko gutxi bezala euskera menderatu duena.

Euskal-ikasbide baten egilleak sortzen ditu gure artean eztabaidak eta ixtilluak, ifiork sortuko baditu. Onako oni ere, beraz, uts eta akatsak arkituko dizkio zenbaitek bear bada. Nola ez? Gogoan eduki

bear da, orratik, "puntuak" jarriak zeuzkala egilleak aldez aurretik, ots, gaiñerako CCC-ko ikastaldien joera artu bear zuela, gutxi gora-beera. Eta gogoan eduki bear da, gaiñera, euskal-ikasbide baten egilleak beste izkuntza askotakoek ezagutzen eztituzten oztopo eta eragozpenak arkitzen dituela bere bidean. Euskal-ikasbide onak eta erosoak, edozein gisatakoak direla, gutxi baitira eta izkuntza bera ezpaitago zenbait aldetatik nai litzakean bezain ongi finkatua. Autatu eta berezi-bearra, orra gizonari eman izan zaion doaia eta zigorra: "Aukeraren maukera, atzenean okerra."

Oro ar edo guztira, nekez egin zitekean, ene iritziak ezer balio badu, Etxaniz'ek egin duen bezain lan eder, bide-erdiko eta orniturik. Erraztasunak ezer galdu badu emen edo an, eta euskeraz tutik eztakien ikaslea daukat gogoan, ugaritasunak eta aberastasunak irabazi dute. Etzaigu batere kalte izango, euskeraz pixkaren bat edo geixego dakigula uste dugunoi ere, ikastaldi au astiro irakurtzea eta entzutea.

Diskoak —izlarien izenik ez tut aipatuko, norbait ixilpean uzteko beldurrez— atsegiñez beterik entzungo ditu edozein euskaldunek.

Eta bukaeran esango dut asieran esan bear nuena. Eskerrik bizienak zor dizkiegu guztiok Valverde'tarrei —eta lankide dugun "Ayalde"-ri aurrenik— ikastaldi au orren ederki argitara dutelako... eta beste zergaitengatik ere bai. Ziur nago, zorionez, merezi duen arrera egingo diola jendeak euskal-ikasbide oni bai Euskal-errian eta bai Euskal-errik kanpora.

L. MITXELENA.

